



2009KO IRAILAREN 10EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko irailaren hamarrean, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2009ko uztailaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 10 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (174.649,68 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-011-004 zbk.dun esped.: zerbitzua ematea, astelehenetik ostiralera, egunean 2 orduz. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %4 izango da.

- 606 zbk.dun esped.: zerbitzua 4 ordutan zabaltzea, astelehenetan eta asteazkenetan eguneko bi orduko zerbitzua emanez. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %48 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-011 zbk.dun esped.: bizilekuz aldatu dela eta, alokairuagatik jasotzen duen dirulaguntza etetea.

- 705 zbk.dun esped.: lanean hasi dela eta, alokairuagatik jasotzen duen dirulaguntza etetea.



- 09-01-017 zbk.dun esped.: etxeko mantenimendu gastuetarako hilro 92,5 €ko dirulaguntza ematea.

- 09-01-014 zbk.dun esped.: bere dirusarrerak haunditu direla eta, logela baten alokairurako jasotzen duen dirulaguntza 82,5 €tara murriztea abuztutik urrira.

Minusbaliatuentzako aparkatzeko txartela.-

- 09-02-014 zbk.dun esped.: mugikortasun baremoko gutxieneko puntuak badituela eta, aparkaleku txartela ematea.

Udal tasak ordaintzeko laguntzak.-

2008 urteko udal tasen arloko laguntzen inguruan eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, udalak daukan ordenantzaren aplikazioz, ondorengo dirulaguntzak onartzea:

IZEN ABIZENAK

EHUNEKOA

DIRULAGUNTZA

ESP.ZBK. 3	% 50	111,07€
ESP.ZBK. 2	% 75	134,52€
ESP.ZBK. 17	% 75	141,42€
ESP.ZBK. 18	% 75	236,05€
ESP.ZBK. 10	% 100	67,74€
ESP.ZBK. 6	% 50	75,22€
ESP.ZBK. 7	% 50	138,86€
ESP.ZBK. 9	% 50	107,97€
ESP.ZBK. 11	% 50	241,85€
ESP.ZBK. 14	% 75	147,60€
ESP.ZBK. 19	% 50	78,70€
ESP.ZBK. 4	% 100	143,33€
ESP.ZBK. 1	% 50	80,00€
ESP.ZBK. 5	% 50	66,20€
GUZTIRA		1.770,53 €



IV.- BENEDITARREN ARTXIBATEGIAREN ERAIKUNTZAREN 3., 4. ETA 5. OBRA EGIAZTAGIRIEI ETA EKAINEN ETA UZTAILEKO OSASUN ETA SEGURTASUN KOORDINATZAILEAREN FAKTUREI DAGOKION DIRULAGUNTZA ONARTZEA .-

Lazkaoko Aita Beneditarren egoitza eraikitzen ari den Euskal Dokumentaziorako Agiritegia gordeko duen eraikinaren eraikuntza lanen hirugarren, laugarren eta bosgarren obra-egiaztagiriak, 52.505,06 €, 56.664,97 € eta 81.333,05 €koak hurrenez hurren eta lanen osasun eta segurtasunaren koordinazioaren 2009ko ekaina eta uztaila hilabeteetako gozkiek eta bakoitza 406 euroakoa den fakturak ikusi ondoren, obra egiaztagiri eta faktura hauei udal arkitekto teknikoak bere oniritzia eman diela kontutan izanda eta agiritegi honen eraikuntzarako Aita Beneditarren eta Lazkaoko Udalaren artean izanpetuta dagoen hitzarmenaren baitan, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Lazkaoko Aita Beneditarrei, fakturen guztizko zenbatekoaren %17,15ko dirulaguntza, hau da, HOGITA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAR EURO eta BERROGEITA HAMALAU ZENTIMO (32.810,54 €) ematea erabakitzen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko arratsaldeko zazpiak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



